# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## Udalak

### AMURRIO

3376

**2008ko LEPko hainbat plazaren deialdiaren oinarrien onarpena.**

Amurrioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2009ko apirilaren 23ko bilkuran, ondoko plazak jabetzan hornitzeko deialdiaren oinarriak onartzea erabaki zuen: administrari plaza bat, hiru udaltzain plaza eta zenbait eginkizunetarako langile espezialisten 4 plaza. Lanpostu horiek guztiak Tokiko Gobernu Batzordeak 2008ko azaroaren 20ko bilkuran onartu zuen 2008. urterako lan eskaintza publikoan agertzen ziren. Aipatutako eskaintza publikoa 2008ko abenduaren 19ko ALHAOn eta 2009ko otsailaren 4ko EHAAn argitaratu zen.

Beraz, deialdiaren oinarriak osorik argitaratzen dira jarraian:

#### OINARRIAK

***Lehenengoa.- Deialdiaren helburua.***

Deialdi honen xedea da, udal korporazioaren funtzionarioen aurrekontu-plantillan hutsik dauden eta 2008ko ekitaldirako onartutako Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartutako plazak jabetzan hornitzea, ondorio guztietarako oinarri hauei erantsi eta txertatutako eranskinetan adierazten direnak. Oinarriotan zehazten diren hautaketa prozedura edo sarbide sistemak baliatuko dira.

Edonola ere, derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna duten deialdiko plazak ezin izango dira hornitu, oinarri hauetan eta gehitutako eranskinetan ezarritako eran eskakizuna betetzen dutela egiaztatu ez duten hautagaien bidez.

Berariaz adierazten da epaimahaiak ezin izango duela bete beharreko lanpostu kopurua baino hautagai gehiago hautatu. Muga hori urratzen duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

Oinarri hauei gehitutako eranskinetan zehazten den lanpostu kopuruari hautaketa prozesuan hutsik geratzen direnak gehi dakizkioke.

***Bigarrena.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak edo betekizunak.***

Hautaketa prozeduran parte hartu ahal izateko honako betekizunok bete beharko dira:

1. Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bereizita ez badaude, baita herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere -baldin eta legez bereizita ez badaude-. Azken horiek 21 urte baino gutxiago izan beharko dute edo bestela gurasoen kontura bizi.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen 16 urte beteta izatea, baina nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea, hala badagokio, udaltzain plazen kasuan izan ezik. Izan ere, plaza horiek betetzeko adin betekizuna eranskinetan berariaz azalduta dago.

# ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Municipios

### AMURRIO

3376

**Aprobación bases convocatoria varias plazas OPE 2008.**

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Amurrio en sesión celebrada el 23 de abril de 2009, acordó aprobar las bases de la convocatoria para la provisión en régimen de propiedad de: una plaza de Administrativo, tres plazas de policía local y cuatro plazas de Peones Especialistas en cometidos múltiples, incluidas en la oferta pública de empleo para el ejercicio 2008, que fue aprobada por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el 20 de noviembre de 2008 y publicada en el BOTHA de 19 de diciembre de 2008 y en el BOPV de 4 de febrero de 2009.

En consecuencia, se reproducen íntegramente las bases de la convocatoria:

#### BASES

***Primera.- Objeto de la convocatoria***

Constituye el objeto de la presente convocatoria la provisión, en régimen de propiedad, de plazas vacantes en la plantilla presupuestaria de funcionarios y funcionarias de la Corporación municipal, incluidas en la Oferta de Empleo Público aprobada para el ejercicio de 2008, que se expresan en los correspondientes anexos que se adjuntan e incorporan a todos los efectos a las presentes bases, mediante los procedimientos selectivos o sistemas de acceso que en ellos se determinan.

En cualquier caso, las plazas convocadas para las que se establezca con carácter preceptivo un perfil lingüístico determinado, no podrán ser provistas por aspirantes que no hubieran acreditado su cumplimiento en la forma dispuesta en las presentes bases y anexos a ellas incorporados.

Se declara expresamente que el Tribunal no podrá declarar aprobados a un número mayor de aspirantes que el de plazas convocadas, siendo nulas de pleno derecho las propuestas que infrinjan tal limitación.

Las plazas a proveer, que constan determinadas en los anexos incorporados a estas bases, podrán incrementarse con las que resulten vacantes durante la celebración de los correspondientes procesos selectivos.

***Segunda.- Condiciones o requisitos que deben reunir los o las aspirantes.***

Para poder tomar parte en los correspondientes procedimientos selectivos, será necesario cumplir los siguientes requisitos:

1. Tener la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado Español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

También podrán participar el cónyuge de los o las nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no se hubieren separado de derecho, así como sus descendientes y los o las de su cónyuge siempre asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de (21 años) o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas

2. Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa, a la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias, excepto en el caso de Plazas de Agente de Policía, en las que el requisito de la edad viene recogido expresamente en los anexos.

3. Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen eskatutako ikasketa tituluaren jabe izatea edo bestela titulu hori lortzeko eskubideak ordainduta edukitzea, bai eta lanpostu horiei dagozkien berariazko oinarrietan eskatzen diren betebeharrak konplitzea ere.

4. Administrazio Publikoaren zerbitzutik diziplinako espedientearen bidez aldenduta edo funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

5. Zereginak egiteko funtzio gaitasuna izatea eta dagozkion eginkizunak betetzeko bateraezinak izango liratekeen osasun arazorik ez izatea.

6. Hutsik dauden lanpostuak jabetzan edukitzeko lehiaketa, oposizio eta lehiaketa-oposizioetan hautagai gisa parte hartzeko, Amurriko Udalak ezarri dituen tasak, eskabideak aurkezteko epearen barruan, ordaindu izana. Tasa horiek bat etorri beharko dute lanpostuen titulazio taldearekin.

7. Barne sustapena. Deialdian parte hartu ahal izateko, funtzionarioek beren jatorrizko eskalan zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo lanpostua gordetzea ekartzen duen borondatezko edozein eszedentzia mota hartuta egon beharko dute, jatorrizko eskalan edo azpieskalan bi urte eginda izan beharko dute karrerako funtzionario gisa, haiek nahi duten eskala eta azpieskala horretara sartu ahal izateko eskatzen den titulazioa izan eta bestelako baldintzak bete beharko dituzte, eta ez dute egon behar epai irmoaren bidez kargu publikoan aritzeko ezgaituta, diziplina zehapen irmoaren bidez zerbitzutik aldenduta edo eginkizun gabetua, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

8. Oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan plaza bakoitzerako berariaz adierazten diren bestelakoak.

Adierazitako baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko unean, hautaketa prozesuakirauen bitartean eta izendapena egin arte bete beharko ditu hautagaiak, oinarrietan besterik agertzen denetan izan ezik.

***Hirugarrena.- Eskabideak aurkeztea.***

3.1 Hautaprobetan parte hartu nahi duten pertsonek eskabidean adierazi beharko dute. Horren eredu normalizatua Amurrioko udaletxean dauden udal informazio bulegoetan banatuko da (Juan Urrutia plaza, z.g.) eta, era berean, eskabideak bertan aurkeztuko dira (tasa ordaindu ondoren), 9:00etatik 14:00etara, alkate lehendakariari zuzenduta. Horretarako epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik zenbatzen hasita. Inprimakia udalaren web orritik (www.amurrio.org) behera kargatu ahal izango da.

3.2 Azterketa egiteko eskubideen tasak. Eskabideak aurkezteko garaian indarrean egongo den zerga ordenantzan araututa egongo dira.

Oposiziogileek deialdi bakoitzeko ordaindu beharko duten kuota eskuratu nahi duten lanpostuaren taldearen arabera ezarriko da, taula honi jarraiki:

A1, A2 taldea: 20 euro

C1, C2 eta E taldea: 10 euro

Eskabidea egiteko unean langabezian dauden oposiziogileek % 50eko hobaria izango dute, tasa ordaintzerakoan. Beraz, enplegu txartela aurkeztu beharko dute, langabezian daudela egiaztatzeko.

Azterketa egiteko eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira, diru sarrera edo transferentzia bat eginez “La Caixa” erakundean (Elejondo, 15 - Amurrio), Amurrioko Udalaren izenean, banku-kontu zenbaki honetara: 2100 4135 10 2200017936. Dirua sartzerakoan oposiziogilearen izena eta bi deiturak, NAN zenbakia eta eskuratu nahi duen plaza jasota utzi beharko dira.

3.3 Eskabidea aurkezteak deialdian eskatzen diren baldintzak eta eskakizunak onartzen direla esan nahi du. Hautagairen batek datu faltsuak emanez gero, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

3. A la finalización del periodo de solicitudes estar en posesión de la Titulación Académica oficial exigida, o en su defecto haber abonado los derechos para su obtención, así como de cuantos otros requisitos estén recogidos en las bases específicas correspondientes a cada puesto.

4. No haber sufrido separación mediante expediente disciplinario del servicio de la Administración Pública, ni haber sufrido inhabilitación para el ejercicio de funciones públicas.

5. Tener capacidad funcional para el desempeño de las tareas y no padecer problemas de salud que sean incompatibles con el desempeño de las correspondientes funciones.

6. Haber satisfecho las tasas para concurrir como aspirantes a concursos, oposiciones y concursos-oposiciones para cubrir en propiedad plazas vacantes, establecidas por el Ayuntamiento de Amurrio, dentro del plazo de presentación de solicitudes, correspondiente al grupo de titulación al que se concurra.

7. Promoción interna. Para concurrir el personal funcionario deberá hallarse en situación de servicio activo, excedencia con reserva de puesto de trabajo o servicios especiales, haber completado dos años de servicios en la escala o subescala de procedencia como funcionario o funcionaria de carrera, poseer la titulación y el resto de los requisitos establecidos para el acceso a la escala y subescala al que se aspire a ingresar y no haber sufrido inhabilitación para el ejercicio de cargo público por sentencia judicial firme, ni separación del servicio por sanción disciplinaria firme o suspensión de funciones en la fecha en la que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

8. Aquellos otros que específicamente se fijen para cada plaza a proveer en los anexos incorporados a estas bases.

Todos los requisitos anteriores deberán poseerse en el momento en que finalice el plazo de presentación de solicitudes y gozar de los mismos durante el proceso de selección hasta el nombramiento, salvo que en el correspondiente anexo se disponga otra cosa.

***Tercera.- Presentación de solicitudes.***

3.1. Quienes deseen tomar parte en las pruebas selectivas deberán hacerlo constar en la solicitud que se facilitará en modelo normalizado en las oficinas de Información Municipal, sitas en la Casa Consistorial del Ayuntamiento De Amurrio (Plaza Juan de Urrutia, s/n) y se presentarán en este mismo lugar (una vez realizado el pago de la tasa), en horario de 9:00 a 14:00 horas, dirigidas a la Alcaldía-Presidencia, durante el plazo de 20 días naturales contados a partir del siguiente a aquel en que aparezca la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial del Estado. El impreso podrá ser descargado desde la Web municipal www.amurrio.org.

3.2. Tasas por derechos de examen. Se regularán por la Ordenanza Fiscal en vigor a la fecha de presentación de solicitudes.

La cuota a satisfacer por cada opositor u opositora y por cada convocatoria a la que se presenta, se determinará por el grupo al que corresponde el puesto al que concurre, según la siguiente tabla:

grupo A1, A2: 20 euros

grupo C1, C2 y E: 10 euros

Gozarán de una bonificación del 50 por ciento de la tasa los opositores u opostiroras que se encuentren en situación laboral de desempleo en el momento de realizar la solicitud, debiendo acreditar tal situación mediante la presentación de la tarjeta de empleo.

El pago de los derechos de examen se efectuará dentro del plazo de presentación de solicitudes mediante ingreso o transferencia en “La Caixa”, a nombre del Ayuntamiento de Amurrio, nº de cuenta bancaria 2100 4135 10 2200017936 (Calle Elejondo, nº 15 Amurrio). En el ingreso tienen que hacer constar nombre y apellidos del opositor/a, numero DNI y plaza a la que se opta.

3.3. La presentación de la solicitud supone el compromiso de aceptación de las condiciones y requisitos exigidos en la convocatoria, la falsedad en los datos proporcionados supondrá la eliminación del proceso selectivo.

3.4 Hautagaiek hizkuntza eskakizuna ezarrita edo ezarri gabe duten plazetara aurkezten diren adierazi beharko dute, edo, hala badagokio, bi eratako plazetara aurkezten diren.

3.5 Deialdian parte hartzeko eskabidean hautaprobak zein hizkuntzatan – euskara (batua) edo gaztelania – egingo duten adierazi beharko dute. Atal horretan ezer adierazi ezean, probak gaztelaniaz egingo dituztela ulertuko da.

Gaitasun psikologikoak ebaluatzeko probak diseinuan erabilitako hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo dira (euskaraz edota gaztelaniaz).

3.6 Euskararen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egin nahi dituzten hautagaiek -betekizunetariko bat delako edo merezimendu gisa aurkezteko- eskabidean adierazi beharko dute, eskabideak aurkezteko epearen barruan horren berri aditzera ematen ez badute, ez baitzaie proba horietan parte hartzea onartuko.

Hautaketa prozesuaren barruan lehiaketa faserik badago, eskabidea egiten dutenek eskabidearekin batera alegaturiko merezimenduen adierazpena eta horien egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte. Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta egiaztatu diren merezimenduetatik at ezingo da besterik balioetsi, ez eta epe horren barruan alegatuta egon arren, epea bukatu eta gero egiaztatu direnak ere.

***Laugarrena.- Hautagaiak onartzea.***

4.1 Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, udaletxeko iragarki taulan, udalaren web orrian (www.amurrio.org) eta ALHAOn onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, baita, hala badagokio, onartua ez izateko arrazoiak ere. Zerrendak argitaratu ondorengo egunetik aurrera 10 egun baliodun izango dira, hautagaiek erreklamazioak aurkezteko eta hala behar denean, egin dituzten akatsak zuzentzeko.

Erreklamazioen epea amaiturik eta horiek ebatzi ondoren, alkate lehendakariak hautaketa prozeduretako onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du, ebazpen baten bidez. Aurreko hori ALHAOn argitaratuko da eta udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.amurrio.org) jendaurrean jarriko da. Zerrenda horietan hautagaien izena eta bi deiturak jasoko dira, eta, hala dagokionean, ez onartzearen arrazoia.

***Bosgarrena.- Epaimahaiaren osaera, izendapena eta jarduera.***

5.1. Deialdi bakoitzeko epaimahaia dagokion eranskinean agertzen da.

5.2. Epaimahaiko kideen izendapena egin ondoren, hala titularrena nola ordezkoena, ALHAOn, korporazioaren iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.amurrio.org) argitaratuko da, hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi duen ebazpenarekin batera.

5.3. Bestalde, epaimahaiak dagozkion ordezkoak izango ditu; epaimahaiko idazkari eta eskuordetu ezinak diren epaimahaikide titularren eta ordezkoen izendapena aldi berean egingo dira.

5.4. Epaimahaia zuzenbidez osatzen duten kideen erdiak, gutxienez, bete nahi den lanposturako eskatzen den jakintza arloko titulazioa eduki beharko du, eta den-denek izan behar dute deitutako lanposturako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa; lehendakaria eta idazkaria beharkizun horretatik at geratzen dira. Era berean, epaimahaiko idazkariak ez du boto eskubiderik izango.

5.5. Epaimahaiaren osaera orekatua izango da, eta, hala, sexu biek % 40ko ordezkaritza eduki beharko dute gutxienez, betiere, horrela jokatzea egokia ez dela behar bezala egiaztatzen ez bada.

5.6. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, hitza bakarrik izango baitu.

5.7. Epaimahaietan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagokion ordezkaritza gorabehera, erakunde horretako kide bat epai-

3.4. Los y las aspirantes deberán de hacer constar en su instancia, si concurren a plazas que lleven aparejado o no el perfil lingüístico o, en su caso, a ambos tipos de plaza.

3.5. Deberán comunicar en su solicitud de participación el idioma – euskera (batua) o castellano – en el que desean realizar las pruebas selectivas. De no señalar este apartado se entenderá, por defecto, que la/as prueba/s se realicen en castellano.

Las pruebas de evaluación de aptitudes psicológicas se realizarán en el idioma o idiomas (euskera y/o castellano) para el que hayan sido diseñadas.

3.6. Las personas aspirantes que deseen la/s prueba/s de acreditación de perfiles de euskera –tanto como requisito como para méritos- deberán hacerlo constar en la instancia, no siendo admitida su participación en las mismas si no lo hubieran hecho constar dentro del plazo de presentación de solicitudes.

En los supuestos de existencia de fase de concurso en el procedimiento selectivo, los o las solicitantes adjuntarán a su instancia una declaración en la que se relacionen los méritos alegados acompañando los documentos suficientes acreditativos de los mismos. No podrán valorarse méritos distintos a los alegados y justificados dentro del plazo de presentación de instancias, ni aquellos otros que, alegados dentro de dicho plazo, sean justificados posteriormente.

***Cuarta.- Admisión de aspirantes.***

4.1. Expirado el plazo de presentación de solicitudes, se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en la Página Web municipal www.amurrio.org y en el BOTHA las listas provisionales de personas admitidas y excluidas, y en su caso las causas de exclusión, con indicación de que dentro de los 10 días hábiles siguientes, los o las aspirantes podrán formular reclamaciones y subsanar, en su caso, los defectos que pudiera haberse incurrido.

Finalizado el plazo de reclamaciones y una vez resueltas éstas, la Alcaldía-Presidencia dictará resolución, aprobando la lista definitiva de personas admitidas y excluidas a los diferentes procedimientos selectivos, y dicha resolución se publicará en el BOTHA y será expuesta en el tablón de edictos del Ayuntamiento y en la Página Web municipal www.amurrio.org. En estas listas constará el nombre y dos apellidos de los candidatos y candidatas y la causa, en su caso, de la no admisión.

***Quinta.- Composición, designación y actuación del Tribunal Calificador.***

5.1. El Tribunal calificador para cada una de las convocatorias figura en el correspondiente anexo.

5.2. Efectuada la designación nominativa de las personas miembros del Tribunal, tanto titulares como suplentes, se hará pública en el BOTHA, en el tablón de edictos de la Corporación y en la Página Web municipal www.amurrio.org, conjuntamente con la resolución por la que se apruebe la lista de aspirantes definitivamente admitidos y excluidos.

5.3. El Tribunal quedará integrado además, por los o las suplentes respectivos, que simultáneamente con los o las titulares, habrán de designarse para la Secretaría del Tribunal y Vocalías del mismo no delegables.

5.4. Al menos la mitad de las personas miembros que de derecho integren el Tribunal, deberán poseer una titulación correspondiente al mismo área de conocimientos que la exigida para el ingreso en la plaza objeto de provisión y la totalidad de las y los miembros deberán poseer igual o superior nivel académico al exigido para el acceso a la plaza a proveer, quedando exceptuadas de este requisito la Presidencia y Secretaría del mismo. Asimismo la Secretaría del Tribunal no tendrá derecho de voto.

5.5. La composición del Tribunal será equilibrada debiendo estar representado cada sexo al menos al 40 por ciento salvo que se justifique debidamente su no pertinencia.

5.6. Todas las miembros del Tribunal tendrán voz y voto, menos la Secretaría que carecerá de esta última facultad.

5.7. Sin perjuicio de la representación que al Instituto de la Administración Pública Vasca corresponde en los tribunales califi-

mahaikide izango da, deialdian eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko balioko duten probetan.

5.8. Epaimahaiak adituen aholkua eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen duen probetan. Aholkulariek beren espezialitate teknikoetan baino ez dute laguntza emango.

5.9. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta horren berri emango diote alkate lehendakariari, eta, era berean, hautagaiek epaimahaikideak errefusa ditzakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

5.10. Epaimahaiaren erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Edonola ere, epaimahaiek aztergaietan adituak direnak batzarretara joateko eskatu ahalko dute. Aholkulari jardungo dute beren espezialitateetan, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

5.11. Epaimahaiak aurkeztuko zaizkion zalantzak erabakitzeko eta oinarri hauetako hautaketa prozeduraren ordena eta garapen egokirako behar diren erabakiak hartzeko ahalmena du.

5.12. Epaimahaiko idazkari titularraren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago, edo titularrari zein ordezkoari esku hartzea eragozten dion legezko kausaren bat gertatzen bada, edozein epaimahaikidek bete ahal izango du kargua, baldin eta epaimahaiaren botoen gehiengoz hala onartu bada.

5.13. Epaimahaiko lehendakari titularraren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago, edo titularrari zein ordezkoari esku hartzea eragozten dion legezko kausaren bat gertatzen bada, mailarik goreneko epaimahaikideak bete ahal izango du haren lekua. Mailari dagokionez berdinketa badago, adinez nagusiena denak beteko du.

***Seigarrena.- Hautaketa prozedura***

6.1. Hautagaien hautaketa honako deialdi honen oinarriei itsatsi zaizkien eranskinetan hautaketa prozesu bakoitzerako ezartzen den sistemaren bidez egingo da.

6.2. Lehiaketa fasea hautagaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta balioestean datza, eta honako oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan azaltzen diren baremoen arabera lehiakide bakoitzari dagozkien puntuak esleituz egingo da. Hautagaiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna arte hartutako, alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baino ez dira kontuan hartuko, eta hautagai bakoitzari dagokion puntuazioa esleituko zaio, betiere, deialdia arautzen duten honako oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan ezarrita dagoenaren arabera.

6.3. Ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz, lehiaketaren fasea oposizio fasea baino lehenago egingo da, ez da baztertzailea izango, eta ez da kontuan hartuko oposizioko probak gainditzeko.

6.4. Oposizio fasea nahitaezko eta borondatezko ariketek osatuko dute, eta ariketa horiek oinarri hauen eranskinetan ezarri dira. Oposizio fasearen ariketa bakoitzeko esleituko den puntuazioa oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan ezarrita dagoena izango da.

6.5. Lanpostuak eskuratu, sustatu eta hornitzeko indarrean den Araudiko 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, elbarriak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira. Horrenbestez, hala eskatu duten elbarrientzat denbora eta bitartekoen egokitzapenak egingo dira, hautaprobak egin ahal izateko. Horretarako, deialdian parte hartzeko eskabidean bertan eskaera zehatza egin beharko dute.

6.6. Euskara azterketa baztertzailea izango da oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna ezarrita duten plazen kasuetan, eta borondatezkoa, gainerako plazetan. Plaza bakoitzak esleituta duen hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko ariketa hori komuna izango da hautagai guztientzat.

cadores, un o una representante de dicho Instituto formará parte de los mismos en aquellas pruebas que estén destinadas a la acreditación de los perfiles lingüísticos exigidos en la convocatoria.

5.8. El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos de asesoramiento especialista para las pruebas que estime oportunas, limitándose dicho asesoramiento a prestar su colaboración en sus especialidades técnicas.

5.9. Los o las miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la Alcaldía-Presidencia, y los o las aspirantes podrán recusarles, conforme a lo establecido en los artículos 28 y 29 de la vigente Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

5.10. Las decisiones del Tribunal se adoptarán por la mayoría de votos. En todo caso, los Tribunales podrán solicitar la asistencia a las sesiones de personas expertas en las materias objeto de examen, quienes, en calidad de asesores, podrán actuar con voz pero sin voto en las materias propias de su especialidad

5.11. El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se planteen y para adoptar los acuerdos necesarios para el buen orden y desarrollo del procedimiento en las presentes bases.

5.12. La sustitución de la Secretaría del Tribunal, en casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a ésta y su suplencia, recaerá en otro u otra de las personas del tribunal elegido o elegida por acuerdo mayoritario de éste.

5.13. La sustitución de la Presidencia del Tribunal, en casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a ésta y su suplencia, recaerá en el o la componente del Tribunal de mayor rango. A igualdad de rango él o la de mayor edad.

***Sexta.- Procedimiento de selección.***

6.1. El procedimiento de selección de los o las aspirantes será el que para cada clase de plaza a proveer se determine en los anexos incorporados a las bases de esta convocatoria.

6.2. La fase de concurso consistirá en el examen y valoración de los méritos alegados y acreditados por los o las aspirantes y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos que les correspondan con arreglo a los baremos que constan en los anexos de estas Bases. Computarán únicamente los méritos contraídos, alegados y acreditados por los/as aspirantes hasta el día en que finalice el plazo de presentación de instancias y se efectuará asignando a cada uno/a de ellos/as la puntuación que les corresponda, con arreglo a lo determinado por los anexos incorporados a las presentes bases que rigen la convocatoria.

6.3. De conformidad con lo dispuesto por el Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, la fase de concurso será previa a la de oposición, no tendrá carácter eliminatorio, ni podrá tenerse en cuenta para superar las pruebas de la fase de oposición.

6.4. La fase de oposición estará constituida por los ejercicios de carácter obligatorio y voluntario, que se fijan en los anexos de estas bases. La puntuación a asignar para cada uno de los ejercicios de la fase de oposición será la determinada en los anexos correspondientes incorporados a las presentes bases.

6.5. De conformidad con lo dispuesto por el artículo 19 del vigente Reglamento de Ingreso, Promoción y Provisión de Puestos de Trabajo, serán admitidas las personas con minusvalía en igualdad de condiciones con los/as demás aspirantes. A tal efecto, se establecerán para las personas con minusvalía que lo soliciten las adaptaciones posibles de tiempo y medios para la realización de las pruebas selectivas, debiendo formular la correspondiente petición concreta en la solicitud de participación.

6.6. El examen de euskera será de carácter eliminatorio para las plazas reservadas para perfil lingüístico perceptivo, que constan determinadas en los anexos de estas bases y de carácter voluntario para el resto de las plazas. Este ejercicio será común a todos y todas los y las aspirantes para la acreditación del perfil lingüístico asignado a las correspondientes plazas.

Ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko ariketak egin beharko, dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen IVAPn egiaztagiria duten edo, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretua aldatu duen otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuaren arabera, titulu baliokideren bat duten hautagaiek.

Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna ez duten lanpostuetara aurkeztuko direnek titulu horietakoren bat baldin badute, horien arabera balioetsiko zaie euskararen ezagutza, eta ez dute euskara azterketarik egin beharko hautaketa prozesu honetan.

6.7. Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna ezarrita duten plazetara aurkeztu, eta euskara azterketa baztertzailea gainditzen ez duten hautagaiek, betiere aurkeztu duten eskabideetan bi eratako plazetan parte hartuko dutela berariaz adierazi dutenean, hautaketa prozesuan jarraitu ahal izango dute, derrigortasun datadun hizkuntza eskakizunik ez duten plazetan. Hortaz, eskuratu duten puntuazioa merezimendu gisa hartuko da kontuan, eta oposizioaren nahitaezko ariketetan atera dituzten puntuazioak errespetatu egingo dira.

6.8. Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna duten plazetara deitu diren plazen kopurua baino jende gehiago aurkeztuko balitz, honako oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan zehazten den eran hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten hautagaiek, horiek eskuratu ahal izatetik kanpo geratzen direnean, hautaketa prozesuarekin jarraitu ahal izango dute derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna ezarrita ez duten plazetan. Halakoetan, oposizioko nahitaezko ariketetan atera dituzten puntuazioak errespetatu egingo dira, betiere, aurkeztu duten eskabidean bi eratako plazetan parte hartuko dutela berariaz adierazi badute.

6.9. Ariketa bakoitzaren puntuazioa korporazioaren iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.amurrio.org) argitaratuko den iragarkiaren bidez jarriko da jendaurrean, epaimahaiak kalifikazioak erabaki eta hurrengo 24 orduetan.

6.10. Hautagaiei behin baino ez zaie deituko ariketa bakoitzerako, eta hautagaia edozein ariketa egiteko deitua den unean aurkeztuko ez balitz, automatikoki, delako ariketan eta hurrengoetan ere parte hartzeko eskubidea galduko luke, eta ondorioz, hautaketa prozesutik baztertuta geratuko litzateke.

6.11. Oposizioko ariketa bakoitzaren bukaeratik eta hurrengoaren hasiera bitartean gutxienez 72 ordu eta gehienez 45 eguneko tartea utzi behar da.

6.12. Lehenengo ariketaren ondorengoetarako deialdiak udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.amurrio.org) argitaratuko ditu epaimahaiak. Iragarki horiek ariketa hasi baino 12 ordu lehenago, gutxienez, jendaurreratu behar dira, ariketa berria bada.

6.13. Epaimahaiak edozein unetan behar bezala identifikatzeko eska diezaieke hautagaiei; hortaz, oposizioko azterketa guztietara nortasun agiria eraman beharko dute.

6.14 Hautaketa prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak hautagaietariko bati deialdian eskatzen diren baldintzaren bat falta zaiola jakin badu, aurretiaz interesatuari entzunaldia eginda, baztertuta geratuko da, eta dagokion agintariari jakinaraziko zaio.

***Zazpigarrena.- Hautaketa prozesuaren hasiera.***

7.1. Oposizio faseko lehenengo azterketaren tokia, eguna eta ordua 10 egun natural lehenago ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.amurrio.org) argitaratuko dira, hautaketa prozesuan onartuak eta baztertuak izan direnen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera.

Quedarán exentos o exentas de realizar las pruebas de acreditación del Perfil Lingüístico aquellos o aquellas aspirantes que posean el correspondiente certificado expedido por el IVAP del Perfil Lingüístico exigido o bien alguno de los títulos equiparables en el Decreto 48/2009, de 24 de febrero de modificación del Decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera.

Los o las aspirantes a las plazas que no tienen Perfil Lingüístico de carácter preceptivo, que estén en posesión de algunas de esas titulaciones se les valorará el conocimiento de euskera en función de las mismas sin que sea necesario que realicen el examen de euskera en el presente procedimiento.

6.7. Los o las aspirantes a plazas con perfil lingüístico preceptivo que no superasen el examen eliminatorio de euskera, siempre y cuando expresamente hubieren solicitado en su instancia la participación en ambos tipos de plazas, podrán continuar con el procedimiento selectivo en aquellas plazas que no llevasen aparejado el perfil lingüístico preceptivo, en cuyo caso, la calificación obtenida en este ejercicio será computable como mérito y se respetarán las puntuaciones obtenidas en todos los ejercicios obligatorios de la oposición.

6.8. En el supuesto de mayor número de aspirantes a plazas con perfil lingüístico preceptivo que el de plazas convocadas, aquellos o aquellas aspirantes que habiendo acreditado el perfil lingüístico en la forma prevista en los anexos de estas bases, no tengan posibilidades de acceder a este tipo de plazas, podrán continuar con el procedimiento selectivo en aquellas plazas que no llevasen aparejado el perfil lingüístico preceptivo, respetándoles las puntuaciones obtenidas en todos los ejercicios de la oposición, siempre que expresamente hubiesen solicitado en la instancia su participación en ambos tipos de plaza.

6.9. Las puntuaciones de cada ejercicio se harán públicas mediante el correspondiente anuncio a insertar en el tablón de edictos de la Corporación y en la Página Web municipal www.amurrio.org dentro de las 24 horas siguientes a que se acuerde la calificación por el Tribunal.

6.10. Los opositores o las opositoras serán convocados para cada ejercicio de la oposición en llamamiento único, y la no presentación de un opositor o una opositora a cualquiera de los ejercicios en el momento de ser llamado o llamada determinará automáticamente el decaimiento de su derecho a participar en el mismo ejercicio y en los sucesivos, quedando excluido en su consecuencia, del procedimiento selectivo.

6.11. Desde la conclusión de cada ejercicio de la oposición y el comienzo del siguiente deberá transcurrir un plazo mínimo de 72 horas, y máximo de 45 días naturales.

6.12. La publicación de los sucesivos anuncios y de la celebración de los restantes ejercicios, posteriores al primero, se efectuará por el Tribunal en el tablón de edictos del Ayuntamiento y en la Página Web municipal www.amurrio.org. Estos anuncios deberán hacerse públicos al menos con 12 horas de antelación a su comienzo, si se trata de uno nuevo.

6.13. Los tribunales calificadores podrán en todo momento requerir a los o las aspirantes para que se identifiquen debidamente, a cuyo efecto habrán de concurrir a la realización de cada ejercicio de la oposición provistos del DNI.

6.14. Si en cualquier momento del procedimiento selectivo llegare a conocimiento del Tribunal que alguno o alguna de los o las aspirantes carece de los requisitos exigidos en la convocatoria, se le excluirá de la misma, previa audiencia del interesado o de la interesada, dando cuenta el mismo a la autoridad correspondiente.

***Séptima.- Comienzo del proceso selectivo.***

7.1. El lugar, fecha y hora de comienzo del primer ejercicio de la fase de la oposición se publicará en él BOTHA y tablón de edictos del Ayuntamiento y en la Página Web municipal www.amurrio.org, conjuntamente con la resolución por la que se apruebe la lista definitiva de personas admitidas y excluidas del proceso selectivo con 10 días naturales de antelación.

7.2. Honako deialdi honen bolumena kontuan hartuz, Udalak dituen giza eta gauza baliabideei egokitzeko, alkate lehendakariari nahiz haren ordez, Barne Araubide eta Langileria Arloaren ardura duen zinegotziari eskabideak aurkezteko eta ariketak egiteko epeak denboraren aldetik tartekatzeko eskumena ematen zaio. Hala ere, banaketa hori jarraitutasun soluziorik gabe egin ahalko da, udal korporazioari legez atxiki zaion antolaketarako ahalmena erabiliz.

***Zortzigarrena.- Hautaproben kalifikazioa***

8.1 Lehiaketako merezimenduen balioespena oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan ezarrita dauden merezimendu baremoaren arabera emandako puntuen batuketak zehaztuko du.

8.2 Oposizio faseko ariketak oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan ezarrita dagoenaren arabera kalifikatuko dira.

8.3 Oposizioaren ariketa bakoitzeko kalifikazioak, eta hala dagokionean, lehiaketaren fasean ezarri diren meritu bakoitzarenak, epaimahaiko kide bakoitzak ematen duen puntuazioaren batuketa eginda bertaratutakoen artean zatituz aterako dira, eta kozientea izango da bakoitzaren behin betiko kalifikazioa.

8.4 Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuen batura izango da.

Berdinketa egonez gero, ordena jartzeko lehenengo eta behin kontuan hartuko dena oposizio fasean puntuaziorik onena nork atera duen izango da, bigarrena, nork eman duen denborarik luzeena Amurrioko Udalaren zerbitzupean; hirugarrena, nork eman duen denborarik luzeena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan; laugarrena, bestelako administrazio publikoetan nork eman duen denborarik luzeena, eta azkenik, adinez zaharrena denaren aldeko erabakia hartuko litzateke.

***Bederatzigarrena.- Hautaketa prozesua gainditu dutenen zerrenda.***

9.1. Oposizioaren lehen ariketa egin aurretik, udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.amurrio.org) lehiaketa fasearen emaitzak argitaratuko dira, betiere, oinarri hauei itsatsi zaizkien eranskinetan ezarri denaren arabera, hautaketa sistema oposizio-lehiaketakoa denean.

9.2. Oposizio faseko ariketa guztiak zuzendutakoan, epaimahaiak udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.amurrio.org) argitaratuko ditu dagozkion emaitzak; derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna ezarrita duten eta ez duten plazei dagozkien zerrendak bereizirik jarriko dira.

9.3. Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren gutxienez hiru egun balioduneko epea jarriko da azterketak berrikusteko eta azterketa berrikusteko epea amaitzen denetik beste bi egun balioduneko epea erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak epaimahaiburuari zuzendu behar zaizkio eta idatziz aurkeztu behar dira.

9.4. Oposizio faseko azken azterketa amaitutakoan, epaimahaiak puntuazio ordenaren arabera gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du; zerrenda horretan, gehienez, atera diren lanpostuen kopuru bereko hautagaiak egon daitezke, eta zerrenda korporazioko lehendakariari bidaliko dio dagokion izendapena egin dezan. Aldi berean, azken bilerako akta ere bidaliko dio agintari horri, puntuazioaren ordenaren arabera, hautaproba guztiak gainditu arren deialdian atera diren lanpostuak baino gehiago izateagatik kanpoan gelditu diren oposiziogile guztiak azaltzen direla azalduta. Hori guztia, lanpostua atera duten hautagai bat edo gehiago lanpostuaz jabetzen ez badira, hutsunea betetzeko, beste inolako eskubide edo itxaropenik gabe.

9.5. Epaimahaiaren erabakiak lotesleak izango dira izendapena egiteko ardura duen organoarentzat, horrek erabaki horiek aztertzeko

